

Nafarrakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko urriaren 14a / IV. urtea / 148. zenbakia



Irulegiko mahastiak, Baigorriko haranaren gainean.

Ardo gorri naparrak ari garenean, frankotan ahazten ditugu gure lurraldean berean ekoizten diren beste ardoak, 'Navarra' jatorrizko izendapena darama bezain nafarrak. 'Rioja' ez ezik, mugaz bestaldean 'Irulegi' izendapena dugu, Baigorriko eskualde osoa hartzen duena, eta urtetik urtera gero eta onarpen handiagoa daukana. Ez da lanbide berria, men-

Irulegi, arno gaztea

deetatik datorren usuarioa baizik, baina 60. urteetan desagertzearekin egon ziren mahastiak. Orduan sortu zen kooperatiba, lur berriak landatu ziren, eta egun 180 hektarea daude horretara emanak inguru osoan, eta bost urteren buruan beste ehun bat landatzeko asmoa dute bertan. Gaztea eta osasuntsua, Irulegiko arnoa.

Lur deslaila

PILI YOLDI

Garai latzak gureak

Ba omen da apaiz bat Errosarioa otoitz egiteko makina elketroniko bat asmatu duena. Aita Paskuale Sillak egindako tresnarekin Errosarioa eten duzun misterioan edo letanatik hasten da berrituz nahi duzun unean. Pasa den astean irakurri nuen Aieneak egiteko Harresian zure eskaerak paratzeke ez dela judutarren hiribururaino joen beharrik, faxen bidetz bidali baitezakezu zure otoitza: 971.261 22 22 zenbakia jo

eta listo!, Jerusalemeneraino Estatuko den Bezeq enpresak mensajeroz bidaltzen dizu zure nahia. Baina okerrena izan zen aldizkari batean beste modernokeriaren berri jaso nuenean: Japonian, Jokohamako Hilerrin nagusian dagoen otoitz egiteko gelaren batean, goizero, bedertzietan puntuan, sapaiait mozej mozorroturiko robot bat jeisten omen da eta konpakt baten erritmoan begiak eta ezpainak mugituz, karaoke batean egongo ba-



litz bezala, otoitzeari ekiten dio, lau dialektoz. Eta automatikoa da.

Udazkena eta kurtso hasiera aurrean ditudanean izpiritualtasunari begira jartzeko gogo sentitzen dut nik, beste batzuek garai honetan ikastaro egiteko sukarrez jota dauden bezala. Haurtzaro galduaren barruko gardentasunaren bila ni baino zoriontsuago (?) bizi diren kristau, budista edota judutar sustuenetan hasten naiz pentsatzen. Baina, gaur egun, erlijiotasunean

ezin omen da elektronikak aparte pentsatu. Zientzietakoa izan ote behar? Elektronika ikasi? Erlijioek bere berezko estetika galdu badute, neri ez zaizkit jadanik interesatzen. Jaungoikoekin harremanetan jartzeko makinak behar badira pilak oparitu beharko dituzte elizetan edo, bestela, Jehovak Zeruan bertan ordaintzeko bere telefono-faxa jar dezala, gero hantxe bertan egingo ditugu kontuak. Bestela, ni bezalako sinesgabeak ez dituzte sekulan berreskuratuko.

XX GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK



Nafarroako Paisaia Jesus Lasterra pintorearen erakusketa zabalik dago Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa. Asteleheneretan itxita, honako ordutegia du beste egunetan: asteazken zehar 11.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 19.00etara; jai egunetan, berriz, 11.00etatik 13.00etara. Azaroaren 2a arte iraunen du.

'Bardeak, basamortuaren arkeologia' izenburuko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoan azaroaren 6a arte. Bertan, herrialdeko eremu honetan izandako aldaketak agertzen dira, bere ezaugarriak erakutsiz. Goiz eta arratsaldean joan daiteke astegunetan, igandean itxita baita.

ZINEMA



'Raices' izeneko pelikula eskainiko dute heldu den ostegunean, urriak 20, Iruñeko Olite zinemaren. Nafar Ateneoak zinema mexikarrari buruz antolatutako duen zikloaren barruan, 20.00etan hasiko da. Ateneoko bazkideentzat dohainik izanen da, bazkideak ez direnek, 350 pezeta ordaindu beharko dute.

'De la familia de los caimanes', 'Carta desde Nueva York', 'Habitación 666. No importa cuando' eta 'Arisha, el oso y el anillo de piedra' izenburuko pelikulak eskainiko dituzte heldu den asteartean, hilak 18, Iruñeko Olite zinemaren. Cine Club Lux taldeak Wim Wenders zuzendari alemaniarri buruz antolatutako duen zikloaren barruan, emanaldia 20.00etan hasiko da. Sarrearak 350 pezetan salduko dituzte.

MUSIKA



'Bizkar Ezurra' eta 'Los Dinosaurios' musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, urriak 15, Etxalarren. Bertako gazteek antolatuta, 22.30etan hasiko da, pilotalekuan.

Mikel Elizaga eta Iñaki Alfaro abeslariaren kontzertua izanen da gaur ostirala, urriak 14, Tafallan. AEK Egunaren aurretik antolatutako ekitaldien barruan, emanaldia 20.00etan hasiko da, herriko Kultur Etxean.

ANTZERKIA



'Joku, Moku' izeneko antzez-lana taularatuko du heldu den asteazkenean, hilak 19 Jake Mate taldeak. Iruñeko Aita Salestarren ikastetxearen aretoan izanen da, 17.00etan eta 18.30etan.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Enpresak nagusi

Aste honetako gaiak ekonomikoak izan dira nagusiki, UPNren gora-beherak gora-behera. Nafarroako bi enpresa nagusienetakoez —FNASA eta Lesakako Laminaciones— krisi ekonomikoaren ondorioak ezagutu dituzte aste honetan, eta bietan sindikatuk ageri dira protagonistak. Sindikatuak protagoni-

gortu egin zituen baldintzak, eta erreferenduma berriro errepikatzea deliberatu zuten sindikatuek. Asteartean egin zen, eta oraingoan aldeko botoa eman zuten langileek, nahiz eta abstentzioa izaugarri handia (% 40,7) izan. Abstentzioa bultzatzen zuten sindikatuek (LAB, CGT eta ELA) onartu egin zuten emaitza,

duela hiru urte, urduritasuna nagusitu zen Baztan-Bidasoa eskualde osoan, biziki lotuta baitago hango ekonomia Lesakako lantegiari. Enpresatik zetozen hotsek Nafarroako lantegiak ez zirela ia ukituko zioten, baina aste honetan bertan iragarri duen planaren arabera, 767 langile gutxiago izango dituzte bi lantegiek.



nistak, baina enpresak nagusi. FNASA enpresa Nafarroako handiena da, eta bertan negoziatu edo aldatzen den orok berebiziko oijartzuna du ekonomian. Komenioaren aurka azaldu zen iaz langilegoa, enpresak eskaintzen zituen baldintzak nahikoak ez zirela-koan. Enpresak orduan go-

proposamena onartzearen aldekoa izan zelako argi eta garbi, baina enpresak igorritako beldur mezuak salatu zituzten.

Lesakako Laminaciones eta Iruñeko Perfrisa lantegietan ere berriak izan dira aste honetan. Bizkaiko Labe Garaiak enpresa krisiak jo zuenean,

Eragin handiena Perfrisak izango du, eta bertako Langileen Batzordeko buruak ziria sartu ziotela azaldu zuen. Lesakan ere horrelako zerbait espero zuten, aspaldian azaldu baitzuten murrizketak izan, izango zirela.

Berriro ere enpresak nagusi.

ASTEKO PERTSONAIK



Miguel Sanz
Gobernuko lehendakariordea

Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak ez duela Mkargua utziko erabaki du aste honetan, aurrekoan sortutako istiluak ikusita dimisioa aurkeztekotan izan baitzen. Azkenean akordioa lortu zuen Juan Cruz Alli lehendakariarekin eta UPN barruko krisia amaitu dela ziurtatu dute alderdiko agintariek. Ez da, ordea, hain erraza izango, Alfredo Jaime Iruñeko alkatearen kontra igorritako akusazioak aztertzen ari baitira. Gobernuan daudenetik, arazo ugari izan dira UPN barruan. Azkeneko hau Alliren erabakien ondoren lehertu zen, egun berean bigarren lehendakariorde bat izendatu eta Jaimeren dimisioa eskatu baitzuten. Dirudienez, baretu da ekaitza. Noiz arte iraunen duen ezin esan, ordea.



Julian Retegi
Pilotaria

Berrogei urte bete ditu aste honetan Julian Retegi pilotariak, eta Boraindik segitzeko asmoa baduela azaldu du. Eskuz Banakako txapelketa uztea erabaki «gogorra» izan zela aitortu zuen Eratsungo kirolariak, baina beste txapelketetan segitzeko asmoa du. «Binakako txapelketa eta lau t'erdikoa hor daude, gustura ibiltzen naiz horietan eta hor segituko dut». Belaunetan arazo ugari izan ditu, eta medikuek garbi esan zioten ezin zuela gehiegi indartu. Garbi dauka ezin izanen duela urte askoz iraun maila berean, «baina hori bai, behera egiten dudanean, konturatzen naizenean ez nagoela ohizko forman, utziko dut». Ordura arte, bere joku bizia eta ikusgarria eskiniko digu Retegi IIak.

AHAZTU GABE!

ERAKUSKETA



'Pirinioa. Zuhaitzak eta zuhaixkak. Paisaiak' izeneko erakusketa ikusgai dago Bertizko Natur Parkean. Nafarroako Gobernuko Ingurugiro sailak eta Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak antolatuta, azaroaren 6a arte iraunen du. Ikusteko ordutegia hau da: goizez, 10.30etatik 1.30etara eta arratsaldean, 4etatik 5.30etara. Zehazki, Jauregiaren erakusketa agetoan dago kokatua eta bi bloke ezberdinetan banatu dute. Lehen atalean Pirinio-tako 40-50 arbol mota ezberdinak eta zuhaixken 100 espeziaren irudiak eta landare bizia erakusten dizkigute, Jakako Ekologiaren Institutu Piriniarrak osatutako 20 panelen bitartez. Bigarren atalean, Fernando Redonen 20 argazki eder eta esanguratsuak daude ikusgai, inguruetako paisaia ezberdinak agertzen direlarik.

JENERO XUMEKOAK

Nere ohatzea defendituko dut

Ostoan kontra. Sikarioen kontra. Eta batez ere, nire haurraren kontra. Gaueko bostetan bere sehaskatik jaiki eta bere aita-amaren ohatzera datorren nire haurraren kontra. Nire eskutik tiraka ospa ospa esaten duen basa-aingerutxo horren kontra.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneratik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Altsasu

Egitarau mardula ferietarako

AMAIA AMILIBIA / ALTSASU

Larunbatean eguerdiko hamabietan hasi eta igandera bitartean egingo dira Altsasun aurten nahiko egitarau osoa duten ferriak. Ohizkoak diren abere lehiaketa, peña eta koadrilak, pilota partiduak, argazki rally-a, erraldoiak eta kilikiak, zaldiki dastapena eta perretxiko eta aeromodelismo erakusketak izanen dira azken urteotan bezala. Baina horietaz gain, beste zenbait ekitaldi egingo dira asteburu honetan.

Hala ere, larunbata baino lehen, gaur Altsasun badago zer eginik. Altsasuk Mendigoizaleak taldeak antolatutako Mendiko Astearen barnean, anaitasun afaria egiten dute, baina afaria baino lehen, arratsaldeko zortzietan, Xabier Goñik Alaskari buruzko diapositiba bilduma eskainiko du Euskadiko Kutzako aretoan. Ordu berean, Beti Yaten elkartean, gazta dastapen komentatua antolatuta dago.

Larunbatean, arratsaldeko lauretan, haur eta gaztetxoek zaldi eskola ibiliko da Zelandi eta Zelai kalearen arteko larrebatean. 18.00etan, aeromodelismo erakusketari hasiera emanen zaio. 'Altsasu 1936-1994' izenburu duen erakusketa larunbat arratsaldean, 18.30etan, izango da ikusgai, eta bertan Helena Taberna zinemagileak 'Altsasu, 1936' pelikula egin baino lehen



Zaldi gero eta gutxiago, jende gero eta gehiago ferietan.

elkarrizketatu zituen pertsonen argazkiak, eta baita garaiko argazkiak ere ikusgai izanen dira erakusketan. Gaueko bederatzietan, aldiz, 'Altsasu, 1936' pelikularen lehenengo emanaldia izanen da Lankide Heziketarako Institutuan. Igandean, 18.00etatik aurrera berriz eman go dute. 19.00etatik aurrera, Asegarce enpresako pilotaririk onenen arteko partidua izango da, eta Retegi II, Beloki, Tintin

III eta Arretxe ariko dira aurrez aurre Burunda pilotalekuan.

Igandean txistulari eta gaiteroen dianekin batera hasiko da argazki lehiaketa, eta 10.00etan Mikologiako Elkartek antolatutako perretxiko erakusketa zabalduko da Gure Etxean, eta eguerdian ondo eta perretxikoen pintxoak salgai jarriko dituzte. 13.30etan, Abere Lehiaketaren sari banaketarekin batera zaldiki dastapena izango da pla-

zan. Bestalde, 10.00etan, Sakanako II. Txistorra Lehiaketari ekingo zaio, eta epaimahaian goi mailako sukaldariak izango dira: Arzak, Irizar, Argiñano, Subijana, Castillo eta Arbelaitz, besteak beste. Ondoren, kofradiaren bigarren kapitulua ospatuko da, eta bertan Jesus Maria Oiarbide altsasuarra ohorezko kofrade izendatuko dute, baita Jose Ulibarrena eskultorea eta Asegarce pilota enpresa ere.

Tafalla

AEK Eguna igande honetan

TAFALLA

'Han eta hemen euskaraz' lelopean, AEK Eguna ospatuko da igande honetan Tafallan. Festa honen zazpigarren edizioa da hau, eta aurreko guztietan bezalaxe, antolatzaileek programa zabal eta alai prestatu dute egun osorako. Aurretik ere izan dira gauza ugari, aste honetan Tafallan mintzaldiak, antzerkia, musika kontzertuak eta bestelakoak antolatu baitituzte. Bihar gauean, herriko Plazetan, berbera izango da Egan taldearekin.

Iganderako programa goizeko hamarretan hasiko da, txistulariak eta gaiteroak herriko kaleetan barna ibiliko baitira giroa alaitzeko. Hamaiketean kalejira hasiko da, zanpantzarrekin eta konpartsarekin. Egurdian, berriz, AEKren ekitaldi nagusia egingo dute antolatzaileek, eta zer egiten duten iragarri ez arren, ikusgarria izango dela aurreratu zuten. Bertsolariak eta jotoeroak ariko dira ondoren, Pla-

zetan, eta bazkaldu aurretik herri kirolen txanda iritsiko da. Egun osoan zehar artisauen erakusketa ikusgai egonen da lorategietan.

Herri bazkaria amaitu bezain laster lau ekitaldi hasiko dira, herriko lau tokitan. Plazan fanfareak eta mimo emanaldia izanen da; Plazetan, berriz, Euskal Herriko musika tresnen erakusketa hasiko da; Eskolapioetan haur parkea paratuko dute, eta Lorategietan kantaldia eskainiko dute Erramun Martikorenak, Jojo eta Ramuntxok eta Axuri taldeak. Arratsaldeko 18.00etan hasiko da eguneko azken ekitaldia, dantzaldia hain zuzen, Tapia eta Leturia, Bittor Aiepe eta Akelarrerren eskutik.

Elena Etxalar Nafarroako AEK-ko arduradunak azaldu zuenez, aurtengo festarako Tafalla aukeratu dute «AEKren izpiritua ederki isladatzen» delako herri honetan. «Tafalla oso eskualde erdalduna dugu eta bertan euskara indartu eta bultzatzeko premia badago ere, baldintzak ez

dira nahi eta behar bezain egoiak. Hor dugu helduen euskalduntze eta alfabetizazioa arautzen duen dekretua, errealitateari muzin egiten diona eta gure lanean lagundu beharrean oztopo suertatzen dena».

Hala ere, eta oztopoak oztopo, AEK-ko irakasle, ikasle eta laguntzaile guztiok aurrera egiteko prest daude, Tafalla bezalako zonetan ilusio handiagoz, «euskara berreskuratzeko eskualde guztietan egindako lana ezinbestekoa dela pentsatzen dugulako», Elenak zioen.

AEK Eguna Tafallan izanen zela jakin bezain pronto sortu zen herrian prestaketa lanetarako batzorde bat. Giro erdaldunean izan arren, euskaltzetasuna oso nabaria da bertan eta antolaketa lanari berehala eutsi zioten. Orain, bi egun falta direlarik, dena prest dute, eta bakarrik jendearen erantzuna falta da. Alde honetatik, dei zabala egin dute euskaltzale guztiak hurbil daitezkeen AEK Egunerak.

Iruñea

Zaldiko Maldikok atek zabaldu ditu

IRUÑEA

Zaldiko Maldiko Elkartek bere bazkideei ez ezik, Iruñerrian bizi diren euskaldun guztiei zabaldu dizkie bere atek larrakenen aroa heltu dela. Horrela Iruñeko Alde Zaharrera erosketak egitera edota buelta bat ematera hurbiltzen den euskaldun guztiok badute aukera Elkartean denbora tarte goxoa igarotzeko, bait tragozka bat hartzen edota euskal aldizkari bat orritzatuz edota lagunekin jolasean ibiltzen, mus, partxis edo xakean. Ikasten ari direnentzat ere Zaldiko Maldikok aukera eman nahi du klase barruan pasatzen diren lotsak alde batera uzteko, bertan euskarazko hitz eta solasak ia konturatu gabe ateratzen baitira. Elkartea ostegun, ostiral eta larunbatero egonen da irekita, gaueko 7etatik 10.30ak bitarte. Halaber, iaz antolatutako Euskal Bideotegia irekita dago, eta laster kultur ekitaldiak, mahai inguruak eta beste hasiko dira.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Infernunik datorrena

Mendialdekoak edo erribera-koak bezain finak gara Navarrierian 'mexikarrak' dantzatzen tenorean. Aspaldiko ohitura dugu, gira-bira amaitezinez osatua den dantza mota hau. Ligatzeko balio duentz ez dut honetan argituko. Anitzetan alkoholak edota karrakako zoluaren eraginez, maitelagunaren azpian zein gainean amaitu izan ohi dugu zorioneko 'mexikarra'. Abesten ere apartak omen gara. 'El preso número nueve', 'Que me sirvan una copa' edota 'Tximeleta maitea' bezalako abestiek gure herri zein hirietako lagunak aztoratu dituzte gaueko ordu txikietan. 'Musikaren esperantoa' deitua izan denak hamaika kontu desberdin isladatzeko balio izan du. Gaztelera nagusi bada ere, edozein hizkuntzak menperatu dezake erritmo hau. 'The Pogues' taldeak ederki frogatu zigun hori. Euskarak ere aspaldi eskuratua dauka 'mexikarren hit paradearen' goiko postua. Zerrenda hori egitean, 'Los Lobos', 'Duo



Gala' edota Jorge Negreterekin batera 'Joselu Anayak' taldea azalduko zaigu. Maitasun istorio-afera askoren lekukoa izan dena. Musika tresna orok maite du erritmo hau. Inoiz ere, gaita baten soinüz lagundurik dantza egin izan dugu 'mexikarren' bat. Halere, bada soinu bat bereziki maite duena, 'infernuaren hauspoaz' ari naitzaizue. Akordiona baino, trikitixa hobe. Naparmexen garaian bizi garenek, soinu diatonikoaz (adituek erranen luketen moduan) gozatzeko parada dugu hurrengo astean. Heldu den urtean Barakaldon izan ez ginenok, infernutik Iruñerako bidaia egiten duen deabrua ezagutuko dugu, bistan da, Flaco Jimenezetaz ari naitzaizue. Flaco Jimenezen jarraitzaile orori jakinarazten zaie Navarrieriako iturrian elkartzen ohi garela hilabete guztiko lehenbiziko ostiraletan, beraz, gurutz horren zama jasotzeko prest zaudetenak argi duzue non diren infernuko atek.

Hasiak dira dagoeneko mahastiak biltzen Irulegi inguruan, Baigorritik gertu, eta aurtengoa uzta ona izanen dela diote bertan, uda idorra izanik. Urteik urtera arno honen produkzioa handitzen ari da eta ia dena 1975ean sortu zen kooperatibak bildu eta saltzen du. Alternatiba dagoeneko ohiko nekazaritzari, Hego Euskal Herrian ezagunagoa izatea du egun erronka.

Aldapetako arno doi latza

ALBERTO BARANDIARAN / IRULEGI

Igaro den astelehenean bazkari batekin ospatu zuen Irulegiko arno kooperatibak jadanik erdi bildua dagoen uzta berria, eta instalakuntzak eta mahastiak erakusteko parada izan zuten bertaratu zirenek. Deigarriena, mahasti batzuetara joateko igo behar diren aldapa malkorrek, mendetan eskuz egin dena makinaren bidez egin ahal izateko sortuak.

Irulegiko kooperatibak 180 hektarea ditu landatuta alderdi osoan, hau da, Garazitik Baigorri bitarte, eta Ortaize eta Bidarraieraino, eta inguru osoa famatu duen arnoaren produktoreen lauetarik hiru biltzen ditu bere baitan. 1960an sortua, kasik desgertuak ziren mahastiak berreskuratzeko eratu zen, eta geroztik lau aldiz handitu da. 1975ean eskuratu zuen jatorri izena, eta ordutik aitzina gora egin du bai kooperatibak berak, bai eta arnoaren kalitateak eta produkzioak ere.

Inguru aski bitxia dugu Irulegi, ez baititu Euskal Herriko beste mahasti lurraldeetan —berezi ki Nafarroan edo Errioxan— dauden ezaugarriak. Hangoak lauak, zabalak dira. Irulegiokoak aldapatsuak, hertsia. Horrek ezaugarria ematen dio arnari, bistan da, eta Jean Mari Crouspeire enologoaren arabera, ezaugarri ona. «Lerokoa dauden mahastiak denak ondoan daude, aldiz hemen, estaiaka izanez, iduzkiak hobeki onzen dio mahatsari». Hain zuzen ere, mahastien antolamendua da, zaporea gora-behera, berezitasun nabarmenetako bat. Lehen eskuz egiten zena makinaren bidez egin ahal izateko, lan handiak egin behar izan ziren pentzetan, eta egun dena, biltzea salbu, traktoreen bidez egiten da.

Berrogeita hamar partaide biltzen dira egun kooperatiban, eta ia 4.500 hektolitro —600.000 botila inguru— atera ziren bertatik, erdia beltza, ia beste erdia gorria, eta gainontzekoa txuria. Zonen arabera arnoen artean desberdintasun tipiak ere badirela, horrek Crouspeirek, lurra ezberdina

izanik. «Baigorri aldean buztina gehiago du lurra, eta Irulegin, kasu, kixu gehiago. Izpura alde horretan, aldiz, harri gehiago dago, eta, beraz, arno ezberdinak sortzen dira. Harriak eginikako arnoa arinago izaten da, eta lur handiagotan eginikoa, Baigorrikoa, bortitzagoa da, eta diferentia. Ez zaio jende berari gustatzen». Horretaz gain, ontzeko ere ezberdintasunak badira, eta Garazi aldeko mahastiak lehenago biltzen dira Baigorrikoak baino.

Arno gaztea da, hala ere. Kontuan hartu behar da mahastiak ia desgerturik zeudela duela hogeita hamar urte, nahiz eta inguruan betidanik ezagutu zen mahastizaintza, eta baserritar askok duela hamar bat urte landatu zituzten mahastiak, ikusirik aterabide bat zela inguruarendako. Horrela, mahasti gazteek sortutako arno gorria urteren buruan saltzen ohi da, eta duela gutti hasi ziren arno beltza upeletan ontzen, erreserbakoa egiteko edo.

Aurtengo produkzioa franko ona izan da, uda aski idorra izan delako, eta aurrikuspenak ezin hobekak dira Irulegi izenarendako. Traba bakarra, gobernuak paratzen dizkion mugak, zori-neko kuotak direla eta. «Bada mahastiak egiteko leku aunitz», azaldu du Crouspeirek, «baina orain ez dugu deretxerik gehiago landatzeko. Urte guziz dugu bakarrik hamar hektarea berri landatzeko deretxoa, eta asko gutti da. Mementuan horretan mugatuak gara, eta ez gara sekulan mahasti handi batzuen egiteko parada ukanen, arno izendapen tiki bat izanen gara». Gobernuaren mugei berari ezarritakoak gehitzen zaizkie, kalitatea dela eta. «Jakinez ez dela nonahi landatzen ahal, nahi ditugu bakarrik terraila onak eskuratu, eta hori ere mugatua da». Hala ere, bost urteren buruan beste chun hektarea gehiago izango dituzte, «errazki saltzen baita arnoa».

Errazki saldua, ez da ohizkoa Euskal Herriko nekazaritzan, batez ere garai hauetan. Horrek laborari gazte asko animatu ditu,



Kooperatiba 1960an sortu zen, kasik desgertuak ziren mahastiak berreskuratzeko, eta lau aldiz handitu da geroztik.

Aurrikuspenak ezin hobekak dira Irulegi izenarendako, eta traba bakarra Gobernuak paratzen dizkion mugak dira, kuotak direla-eta.

Baserritar askok duela hamar bat urte landatu zituen mahastiak ikusirik aterabide bat zela inguruarendako.

eta lurraldean nekazaritzari atxikimendu berria bizi da. Pantxo Endartek lau hektarea ditu bere gain, eta lana erabat desberdina izanik ere, lehen zituen esne-behiek ematen ez zioten aukera izan du arnoarekin: «Hemen gelditzea».

Etxean betidanik ezagutua mahastizaintza, duela lau urte behiak utzi eta mahastiekin hasi zen, zituen lurra aprobetxatu eta zeuden dirulaguntzak eskuratu ondoren. «Behiekin eta kuotekin ezin zen bizi, eta enetako plazer handia izan da mahastiekin lan egitea». Lan diferentia —«urtero mahastia nola sortzen den ikusten da, eta gero fruitua ateratzen»— urteik urtera ikasten den lanbidea dela dio Pantxok —«behar da so egin, begi txikiak, urtero aldatzen baitira gauzak»—, baina aberasteko adina ez du ematen. «Ezin da handizki bizi».

Produkzio gehiena Ipar Euskal Herrian saltzen da, baina arnoa badute Hegoaldean ere sartzeko. Horretarako pare-parean aurkari gogorak dituztela bada, baina dena gustu kontua dela dio Crouspeire enologoak. «Nafarroa eta Errioxa ardoak onak dira eta merkeagoak ere, eta jende ohitua da arno horrekin eta ez du behar bada apreziatzen gurea, zeren eta doi bat pizua, latza da. Hala ere, behar dugu gehiago harremanetan sartu guk hango arnoa dastatuz eta bestaldekoek ere gure arnoa ezagutzen. Orain arte ez zen horren beharrik, arno gutxi baitzen, baina geroari begira ari gara harreman tiki batzuen eginenez, jakinik hobea dela Hegoaldean sartu, hurbilago izanez eta harremanak azkaragoak izanez».

Aldapatsu askoa da lurra Baigorri inguruan erabili behar da zenbat mahasti bisitatzeko. Kooperatiban hamar dira urte osoan, eta prozesu guztia Irulegin duten sotoan egiten dute. ALBERTO BARANDIARAN/HUR GOROSTIAGA



darrai eta Arroza. Herri gehienetan 'AOC', jatorrizko sigiloa lortu dute, salbu Bidarra eta Arrosan.

Aurten mahastibiltze nahiko handia izan da eta bildutako 4.500 hektolitroarekin 580.000 botilak egingo dira. Parte handiena arno beltzarekin izango da, arno xuriaren ekoizpena 1990an baizik abiatu baitute laborariek. Lau eremu daude mahastegian: Arradoieko larrandak, Mignaberry, Mendisokoa eta Iturritxe. Eremu zaharrena Mignaberrikoa da, lehen arnoa ateratu baita 1986an.

HILABETE LUZEKO ZANPORATZEA Aurtengo idortek laborari aintzei

kalteak ekarri balie, aldiz, mahatsarentzat biziki ona izan zela azpimarratu zuten sotoak mahastizainek, nahiz eta irailan egindako euriek erabat izitu zituzten laborariak. Egutero lanean karraskan ari izan dira, egunez eta gauzez, ahal bezain fite mahats guztiak bilarazteko.

Sotoan sartu bezain fite, mahatsaren temperatura eta pizua hartuko dituzte langileek. Laster, tresna handi batzuek berexiko dituzte bihia eta kokota, bihia dupa haundietan sartuko denean. Arno gorria egiteko, hamar ordu dupa horietan utziko dute. Beltza egiteko aldiz, 8 eta 20 egun arte egonen da. Arnoa egurrezko du-

Aspaldiko tradizioa

LUTXI FOURCADE / IRULEGI

Irulegiko sotoko langileentzat ez dago ez jairik, ez iganderik, mahastibiltze abiatu denean. Udazkenak sudurraren punta erakutsi bezain fite, laborariek mahatsa bilduko dute eta arnoaren dantza hasiko da. Etengabe, mahats gorria edo xuria garbitu, pisatu, dastatu, aztertu eta landuko dute sotoko hamar langileek arnoa ahal bezain ona egiteko. Laborariak familiaren bisitaz baliatuko dira lanean ararazteko larunbat eta igandarekin. Berant artio, sotoko bidea hartuko dute hainbat traktore eta karruck, aro ederraz baliatzeko asmoz, euria ez baita sekulan ongi etorria mahatsa kanpoan denean.

Arnoko tradizioa Baionako inguruetan aspaldikoa da, erdi aroan agertu baita hein haundiko arnoaren trafikoa bertako portuan. Orreagako fraideek lehen mahatsak landatu zituzten. XI. mendean Irulegi eta Anauzeko maldetan, Nafarroko monastegitik hurbil. Egindako arnoa Konposteleko bidean zeuden etxe-ospitaleetan banatzeko zen. 1607. urtean, Henri IVk Nafarroa Beherea bere menpean ezarri duenean, Orreagako monastegia mahastegitik muga batekin berexia izan da eta bertako familiak mahats lanak abiatu zituzten. Mahastegi emankor eta zabalak izango da mende honen hasiera arte, 'filoxeris' eritasunak jo zituenean mahastegi gehienak. Mahastegi nahiko zabalak izan ziren mendearren hasieran, 500



600.000 botila da urteroko produkzioa.

ALBERTO BARANDIARAN

hektara baino gehiagotan hedatuta baitzen.

Mahastia berriro landatu zuten laborariek baina bigarren gerlaren ondotik 50 hektarea baizik ez ziren kondatzen haranean, arno gehiena etxeko zenean. 1953an Irulegiko kooperatiba sortu zen, laborariak biltzeko eta mahastia hedatzeko. Gaur egun, 183,45 hektaretan mahatsa biltzen da, zoinetarik 134,05 kooperatibako partaideenak direnean. Bederatzi herrietan zabaldu da eremua: Irulegi, Baigorri, Azkarate, Izpura, Jatsu, Anauze, Orzaize, Bi-

Orreagako fraideek lehen mahastiek landatu zituzten XI. mendean Irulegi eta Anauzeko maldetan.

petan sartuko dute eta hilabete batzuk bertan 'pausatuko' eta zanporatuko da. Arnoak izango duen 'gorputza' haritzez egindako dupeetan hartuko du, botiletan sartu baino lehen. Gorriztat ez bada sof zailtasunik atxikitzeko, be... zat aldiz arazoak badaud... botiletan ezarriko dute eta botilak etzanik atxikiko dira. Salmentaren arabera, botilak hartuko dira, etiketak jarriko dira eta banatua izango da. Metazterren arazoak bazirela azaldu zuten kooperatibaren langileek.



Iruñeko Hiria Xake Torneo Itxiko laugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 30an jokatu.

Jean Luc Seret, 2.450 ELOkoa (Frantzia)-Unai Garbisu, 2.255 ELOkoa (Euskal Herria).

1. d4, f5; 2. Zc3, d5; 3. Ag5, Zf6; 4. Af6, e-f6; 5. e3, Ae6; 6. Ad3, Dd7; 7. gZ-e2, Zc6; 8. a3, 0-0. Erabaki ausarta, erasorako asmoa atzematzen baita. Txuriek erantzun behar diote erronkari. 9. Za4, g5; 10. b4. Erasoko jokoa ziurtatuta dago. Lasterketa hasi da, erregeen bila. 10... Ge8, 11. 0-0, Gg8; 12. b5, Ze7; ; 13. Zc5, Dd6; 14. a4, Eb8; 15. a5, Ac8; 16. c4, f4; 17. e4, f3. Ikus Koadroa. Arinagoak izan dira beltzak. Txuriek arriskuari aurre egin behar diote. Zer egin?

18. Zc3. Peoia jan izan balute, irekiko zen defentsa. Azterketa zorrotza eskatzen zuen horrek. Txuriek ez dute horretan sartu nahi izan. 18... g2; 19. Ge1, Df4; 20. e-d5, Zf5. Honako jarraipena daukagu: 20. Ge8, Ad6; 21. Gc8 xa; Gc8; 22. Eg2, Dh2 xa; 23. Ef1, Zd4; 24. Ee1, Dg1 xa; 25. Ed2, Af4 xa mate. Baina ez zuten hau burutu. 21. Af5, Ge1 xa; 22. De1, Ad6; 23. Eg2, Af5; 24. Ze6, Ah3 xa. Matea egin dago ('Eh3' jokaldiari, 'Df3' mate). Erasoko lasterketa honetan, beltzak askoz ahaltsuago jokatu zuten, txuriak burugabe aritu bitartean.

Badakit ezusteko handia hartuko duzuela ikustean zertaz ari natzaizuen idazten baino orain dela bizpahiru urte gertatu zitzaidan. Hark kontatutakoa idatzita neukan eta hara non nire eskuetan agertzen diren lehen aipaturiko idazkiak. Gezurra irudiko zaizue baina benetan diot idazki hauetan daukadana harri batek kontatua izan zela. Den-dena kontatuko diuzet ahalik eta xehetasun gehienekin.

Egun eder bat zen hura. Eguzkia goian zegoen baina ez zuen gogorregi jotzen. Etxe ondoan dagoen soro batek hara joateko gonbidatzen ninduen iaia. Berde-berdea zegoen eta lore eder haiek belau-netaraino iristen zitzaizkidan. nik ezin uka gonbite hura eta nire txakurra hartu eta haruntza abiatu nintzen. Soroan nire txakurrarekin jolastan egon nintzen baina gero irrikan nengo mendi txiki horren atzean zegoen errekarara joateko. Jadanik arratsaldea hasi besterik ez zen eta nik ezin nituen gogo haiek burutik ezabatu. Mendi txiki hartara igo nintzen inguruko mendi txikiena baitzen errekarara iritsi ahal izateko.

Heldu orduko errekarara harriak botatzen hasi nintzen eta nire txakurra artean, han zebilen hemendik hara harri haien bila. Beste harri bat jaurtizera nindoala «ez, ez!!!» norbaitek garraxi egin zuen. Ez nuen hainbeste bazkaldu izan behar, pentsatu nuen. Harria berriro ere botatzera nindoan eta berriz, «ez, ez!!!» entzun nuen.

—Nork erran du hori?— galdetu nuen alde batetik bestera begiratu.

—Nik— entzun nuen hurbil eta leun.

—Eta non zaude?—


—Zure eskuan.

Nire begirada zuzenki nere eskura bidali nuen. Harria? ezinezkoa zen.


—Mesedez, ez nazazu errekarara jaurtiki, ez baitzait gehiegi gustatzen uretan murgiltzea—. Ni harrituta nengoen. ezin nuen sine-tsi harri batekin mintzatzen egotea. Harriak hitz egiten jarraitu zuen:

—Begira, lurrean uzten banauzu edota

Ametsa ote?



Leire R. Elizagarai
(BARAÑAIN)



zure eskuan egoten banaiz nire bizitza kontaniezazuke. Baina arren, ez nazazu errekarara bota.

—Ongo da, baina nolatan egon naiteke harri batekin hitz egiten?

—Zu lasai egon, dena zehatz-mehatz kontatuko dizut.

Nik beti neraman koaderno eta axota hartu nituen aukera arraro hori ez baita egunerok aurkitzen. Honela jarraitu zuen:

—Hasteko, esango dizut zergatik nagoen zurekin hitz egiten. Badakit ez duzula inoiz aurkitu mintzatzen den harri bat. Baina nik hitz egiten dut, harri bakarra naiz lu azal osoan. hala ere, ezin dut egunerok hitz egin, nik bakarrik mendero behin hitz egin dezaket. Zorte handia daukazu, gaur bertan hitz egiten ari bainaiz. harrituko zera zure hizkuntza berbera hitz egin dezakedala ikustean. Toki batean nagoenean, toki hortako hizkuntza ikasten dut. Bitxia, ezta? Beno, hasi naiz nere istorioa kontatzen. jada ez naiz oroitzen non sortu nintzen. Ausartuko nintzateke esatera orain dela milaka urte atzera sortu nintzela. Gaurdaino, nere bizitza ge-

hiena lagun eta gurasoekin igaro dut mendi garai, eder eta lirain batean. Baina behin, egun hotz eta beltz hartan, makina izugarri bat etorri zen eta lagun eta senideengandik sakabanatu ninduten. Oso itxura bakana eman zidaten, neri behintzat ez zitzaidan batere gustatu, kubo baten itxura eman zidaten, hain zuzen. Ni bezalako hainbat harri ere kubo itxura eman zieten. Batera bildu gintuzten eta gurekin etxe bat eraiki zuten.

Han nahiko urte igaro nituen. Egia esan, ez zitzaidan gustatu ez baitzegoen pakarik etxe hartan. Urteak pasata lurrikara batek astindu gintuen eta han denok pilaturik, bata bestearen gainean amaitu genuen harri pilo bat

osatu. handik egun gutxitara, kamioi bat hurbildu zen eta honek oso leku bakartira eramane gintuen. Han urte mordo igaro nuen. Lasai egoten nintzen nahiz eta ohizko bikotea muxukatzen agertzen zen noizbehinka. Behin bi ume etorri ziren niregana. Batek hartu eta errekarara bota ninduen. Errekan denbora mordo igaro ondoren, itsas ertzerara ailegatu nintzen. Egun batzuk ge-

roago errekarara bota ninduen ume berberak. Haur horrek harriak errekarara botatzea asko maite zuela esango nuke, berriz bota baininduen baina azken hartan gogorki, eta egun hartan jakin nuen mina hitzak zer esanahi zehatza duen. Gaur hemen aurkitu nauzu eta hau da dena. Guzti hau 50 urtetan gertatu zait, milaka urte pakean bizi ondoren.

Harria hartu nuen eta ziztu bizian etxera joan nintzen aberatsa izango nintzela pentsatuz. Bideetik hainbat galdera bururatu zitzaidan: inork eman dizu hitz egiteko gaitasuna? edota, zer sentitzen du harri batek hotsarekin? Baina lanpetuegia nengoen une hartan galderak egiteko. Etxera iritsi bezain pronto amari erakutsi nion harria eta hitz egiten zuela esan nion. Baina harriak ez zuen ezer esaten. Eta nola sinistu behar zidan amak esandakoa? Nire gelan harria gorde nuen eta nire buruan erantzunik gabeko galderak geratu ziren. Biharamunean amak zakar ontzira bota zuen harria, arrunta zelakoan. Berriro aurkituko ez dudala dakidenez, istorio hau idaztea erabaki nuen. Ametsa ote?

JUANTXO URDIROZ

Iberotar Goizpargile Aba

Aita Ibero Iberon jaio zen 1873. urtean. Bere ama, Felisa Oroquieta Erviti, maisu joan zen Uxurbilera, han berean euskara ikasi zuen. Felisa Oroquieta Ugarko Jesus Goicoechearekin esposatu zen. Horien semea Ramon Goicoechea Oroquieta dugu, Aita Ibero, bere garaian Ibero' tar Goizpargile Aba izebarekin deitua.

Aita kaputxino nafar honek bederatzi urte eman zituen Matematika eta Psikologia Lekarotzen irakasten. Gero, Lizarrako kaputxinoen Lekaidetxera zuzendari joan zen 1903. urtean. Latxaga kazetariak azaltzen duenez, Aita Wenzelao Lakuntzak euskaraz erakusten zuen, eta beste askoren artean, hantxe hazia da Utergako Aita Kamilo aureskularia. Urtegako Aita Kamilok Latxagari esana da Ibero' tar

Goizpargile Abak mahaia bederatzikerakoan beti otoi-tza amaitzen zuela esanez: «Gora Euskadi eta Gora Sabino».

Aita Iberok *Ami Vasco* (1906) idatzi zuen. Hona hemen liburu horren zatitxo bat:

«Zeri begiratu egin behar zaio lagun baten aberria zein den jakin ahal izateko? Lagun horri dagokion arrazari, edota, gauza bera baita, bere abizenari. Hortik ondorio haxe atera genezake, Aberria zerbait trinko eta aldaezina dela?, giza-kapritxoetatik at dagoen zera bat? Bai, hola da, gustatu ala ez. Lizarraga abizeneko bat beti izango da euskalduna, nahiz eta Jerezeko kortijo batean jaio, edota Argentinako Panpan, eta Beaumont' tar bat beti izango da frantsesa, eta Tape-ralli' tar bat italiarra, eta Merry' tar



Ez usteak
zure atean joka

Aita kaputxino nafar
honek bederatzi urte
eman zituen
Matematika eta
Psikologia Lekarotzen
irakasten.

bat ingelesa, eta Sanchez' tar bat espainiarra».

1902. urtean, eta ez 1892. urtean, Nafarroako Entziklopedia Haundian irakur daitekeenez, Aralarko Aingeruaren aurrean Iruñeko Katedralean botatako sermoia zela eta, indar politikoko ezkerriarrak asaldatu egin ziren biziki, eta Nafarroatik atzerriratu zuten Aita Ibero. Hona hemen sermoi horren zenbait aipu:

«Gero eta gehiago hausnartu, orduan eta gehiago pozten naiz Euskal herrikoa izateaz. Ez dago herri hau baino zintzoagoa denik, nobleagoa denik, ausartagoa denik; ez da, ez dago, eta ez da izango mundu zabalean».

«Espainia munduko aberrietan kristauen baldin bada, Baskonia da Espainiako lurraldeetan kristauen. Espainiako gainontzeko

lurraldeak, kristoren fedea onartutakoan, arrianismo, mahometismo eta beste ustekerien menpean egonak dira».

«Jaungoikoak eskatzen digu El Pais, El Heraldo, El Imperial, El Liberal izeneko egunkariak irakurri, erosi eta finantzatu beharrean, irakurtzeko, erosteko eta finantzatzeko erabat katolikoak diren egunkariak, Jesusen aldekoak direnak».

«Ni Jaungoikoarengatik borroka aritzen naizelarik, ez naiz barrungo borroka horretaz aritzen, nork bere kontzientziarekin batera arimaren etsaien kontra borrokatu behar duenaz. Ni kanpoko borroka ari naiz».

Hitz jario ederrekoa zen, hizlari trebea. 36 urterekin hil zen Teruelen, «Euskal Herriko minez».

Eskerrak Manuel Beltzunez gari, garaiko agiriak utzi izanagatik.

Bukatuta dago jada Altsasun Josefina Arregi Zentro Psikogeriatrikoa, Alzheimer gaixotasuna tratatuko duen Euskal Herriko lehen osasun etxea. Arfe-Felipe Lezea Fundazioak egina, eraikuntzak 250 milioi pezetako kostua izan du. Zentroa 28 gaixoen-entzat egina da, eta horietatik 13 interno izanen dira eta 15 eguneko zentroan.

Alzheimer etxea


AMAIA AMILIBIA / ALTSASU

Zentroko patronatuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuarekin kudeaketarako ehun milioiko gastua adostu zuen baina dirudienez ez da datorren urtera arte martxan jarriko, komenioa sinatu arte. Josefina Arregi zentroak 1995eko urtarrilera arte gaixoak ez baditu hartuko ere, denbora tarte horretan arduradunek ekin diote langileak prestatu eta kontratatzeari, eta zentroak behar dituen egokitzapen guztiak bizkortzeari. Hala ere asteburu honetan bere atek zabalduko ditu, eta jakinmina duen edonork bertara hurbildu eta ezagutzeko parada izango du.

Gero eta Alzheimer kasu gehiago dago gure artean eta Felipe Lezea zentroko sustatzailearen iduriko, gero eta lan gehiago egin behar izango da gai horrekin. Gaixotasuna 50 urte dituzten artean azaltzen da. Gaixoaren adimena sakonki kalte-tzen da, eta espazioa eta denboraren kontzeptuak franko galtzen dira. Bitartean, gaixoak inguruarekiko atxikimenduari nola-bait eutsi egiten dio. Baina oso zaila da gaixotasuna antzematea, Felipe Lezeak azaldu duenez. «Familiakook garbi ikusten duten arte, urte batzuk igaro dira. Urte hauetan ongi ez dagoela konturatzen zara. Etxetik ateratzeko gogorik ez, gauzekiko ilusioa galtzea, giltzak edota edozein objektu galtzen ditu eta eguneroko beharrak egiteko zailtasunak ditu, erreflexu falta, koordinaziorik eza... eta abar. Eta okerrena da gaixoa bera, aldi berean, betiko gauzak egiteko ez dela gai jabetzen dela».

LEKU EGOKIRIK EZ

Gizarte Segurantzak ez du alzheimer gaixoen-entzat berezko osasun etxerik, eta gaixoetariko asko beren etxetan edo zaharren egoitzetan egoten dira. «Horietan ahal bezala konpontzen dira» gaineratu du Lezeak, «baina horiek ez dira leku egokiak, alzheimer gaixoen arazo anitz sortzen baitizkiete. Geu, geure aldetik, eskualde honetako gaixoak laguntzen saiatuko gara». Iruñean badago alzheimer gaixoen senideen elkarte, Argibidea elkarte hain zuzen, eta horretaz gain eguneko zentro bat ere. Hala ere Altsasun kokatua dagoen zentro honek prestakuntza gehiago eskaintzen ditu. Bertan gaixoak tratatzeaz gain, hiru area bizkortu nahi dituzte bertako arduradunek: ikerkuntza, ha-



Zentroa Altsasuko zona lasaian dago eta argitsu eta atsegina da.


AMAIA AMILIBIA

sierako tratamendua eta hitzaldiak. «Madoz medikuak ikertu nahi du, eta horretaz gain hitzaldiak emateko gela bat egokitu du, gaixoen senitarteko eta lagunei informazioa eman eta hezitzeko. Bestetik gaixoak hasieratik hartu nahi ditu, horrela, goiz artatuz gero, hamar bat urtetan zaindu ahal izango baita. Ilusio handia dute esparru guzti hauetan» azaldu du enpresariak.

Hitzarmena sinatu arte ez da martxan jarriko zentroa. Josefina Arregi Zentro Psikogeriatrikoko patronatuak Nafarroako Gobernuko Osasun Sailarekin hitzarmen bat adostu zuen, 100 milioiko aurrekontua. Hala ere orain bernegoziaketan ari dira eta seguruenik datorren urtarrilean hasiko da. Bitarte horretan bertako zuzendaritza, mediku bat, gizarte langileak eta psikiatrak heldu den urterako dena prest izateko lanean ariko dira.

LANGILE PRESTATUEN BEHARRA

Dagoeneko hasi dira zonaldeko medikuekin bilera egiten, Sakana aldean dauden gaixoak ezagutzeko. Beste egin-behar bat langileen kontratazioa eta prestakuntza da. «Gure nahia hasieratik ondo ibiltzea da. Behargin prestatuak eta gaixoak ongi zaintzen dakien jendea behar da», gaineratu du Felipek. Zentroak 20 bat erizain eta zaintzaile izanen ditu, sukaldari eta garbitzaileekin batera. «Oso ga-



Felipe Lezea, zentroaren bultzatzailea.

AMAIA AMILIBIA

Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu arte ez da zentroa martxan jarriko, eta hori seguruenik datorren urtarrilean izango da.

rrantzitsua da langileak espezializatu egotea. Bokazioa duen jendea behar da, gaixo hauek ez baitira hala-nolakoak; dedikazio eta pazientzia handia behar dute izan».

Felipe Lezeak gertutik ezagutu du alzheimer gaixotasuna. Lau urtetan zehar Iruñean dagoen Hermanas Hospitalarias zentroran eraman baitzuen Josefina Arregi bere emaztea izan zena. «Ez nuen uste eguneko zentroak horrenbesteko onura ekarriko zizunik. Goizero joaten ginen eta arratsean itzuli. Etxera ekartzen nuenean afaldu eta lo egiteko prest zegoen, eta hori asko zen. Josefina eskolara joatea bezala hartzen zuen, bertan lagunak egin zituen eta elkarri laguntzen zioten. Han bazegoen andereño izandako emakume bat eta horrek nire andeari idazten erakutsi zion. Eta nik, neure aldetik, atsedean hartzeko tenorea nuen, lantegira joateko hain zuzen. Arrebak arras lagundu zidan baina hala ere eguneko zentroran eramateko aukerarik izan ez bagenu ezinezkoa izango zatekeen».

Industria gizon altsasuar honek sustatutako osasun etxeko eguneko zentroak 15 gaixoen-entzako lekua du. «Bertara larri ez dauden gaixoak etorriko dira. Bertan, soinketa egingen dute, bazkaldu, paseatu eta medikatu egingo dituzte». Eguneko zentroak hiru gune garrantzitsu izanen ditu: errehabilitazio gela, terapia okupazionala bideratzeko gela eta azkenik, patioa eta eguraldi ona eginez gero zelai gune bat.

Errehabilitazio gelan soinketa egiteko tresnak daude, egunero soinketa eta ariketak egiteko. Terapia Okupazionala gelan, berriz, ikas ariketak bideratuko dituzte: denboraren nozioa (eguna, ordua,...), irakurketa eta idazlanak, mahai jolasak, eta abar. Bertan, mahaiak, telebista, iturri bat, liburuak eta jangela dago. Barnetegiar dagokionez, 13 lagunentzako lekua du, eta larri dauden gaixoen-entzat izango da. Hamahiru logela bere bainugelekin, bainugela geriatrikoa bainera mugikorarekin eta egongela ere badaude.

Josefina Arregi zentroa Altsasuko zonalde lasai eta ireki batean dago. Lauki luzea da osasun etxeko kanpo itxura, solairu bakarrekoa eta erdian patio zabala duena. Patxi Alkaldek zentro psikogeriatrikoa diseinatu du, egoitza argitsu sortuz leiho zabalen bitartez. Oso atsegina eta deigarria, alegia.

«Nekazaritza ekologikoa kultura berria da»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Igandean amaitu zen Iruñean Econavarra izeneko feria ekologikoa, hainbat enpresak eta elkartek arlo honetan lortu dituzten emaitzak aurkezteko. Bio Lur Nekazaritza Ekologikoa elkarte —Landare kooperatibarekin batera— izan da bultzatzaileetako bat, eta Jose Uranga teknikaria arduratu da antolatetaz.

EGUNKARIA.— Bio Lur urtean aritu da lanean nekazaritza ekologikoaren arloan, eta Landarek ere badu esperientziarik. Zergatik orain bion artean erakusketak antolatzeak ideia?

JOSE URANGA.— Duela hiruzpalau urte sortu genuen ideia eta Landarekoek ere uste zuten oso interesgarria izango zela horrelako feria bat egitea. Ados jarri ondoren, antolatzea erabaki genuen. Bio Lurren hasierako asmoa izan da produkzioa lantzea, eta lau urtez aritu gara hori aurrera ateratzen. Baina garbi dago ekoizpena eta salmentak elkarrekin lotu behar direla. Egun ekoizpena nahiko altua da eta salmeta bultzatu behar da orain. Bestalde, garbi daukagu geure merkatua hemen gelditu eta hemen ugaltu behar dela. Orduan, pentsatu genuen orain zela momentua hau aurrera ateratzeko eta jendeari geure produktuak eskaini eta erakusteko.

EGUNKARIA.— Beti esan da ez dagoela produkzio nahikoa dagoen eskaerarendako. Oso garestia al da produkzio mota aldatzea?

URANGA.— Balizko merkatua eskaera baino altuagoa da, baina garbi dago balizkoa dela. Hori betetzeko ari gara lanean, batez ere komertzializazioa eta banaketa azkaragoa eta hobea egiteko. Orain egin dugun feriarekin lehen urratsa hori zen: harremanak izan, jakiteko zer jende dagoen prest gure produktuak banatzeko eta saltzeko. Oraindik merkatua nahiko txikia da.

EGUNKARIA.— Econavarra ferian, zuekin batera, baziren birziklaia lantzen duten enpresa franko, eta bistan da ekolo-



Jose Uranga.

JOXE LACALLE

gia modan dagoela, nolabait negozioa dela. Baina horrekin batera benetan ekologikoak ez diren gauzak aurkitzen dira. Zuek ere izango duzue arazo hori.

URANGA.— Guk apustua egin dugu gauzak kalitate-agiri batekin ateratzeko, pentsatzen dugulako kostu handiagoa izanda ere, zuzenena dela. Gainera, jende askok bat egingo luke moda horrekin, oso polita delako etiketetan 'ekologikoa' hitza jartzea. Hori arautu egin behar da, eta normalena izango litzateke garbiak ez diren teknikak erabiltzen dituztenen arautzea eta kontrolatzea, baina horrelakoa da mundua, beti eskizo-

frenian murgilduta, eta onartu egin behar da.

EGUNKARIA.— Kalkulatu duzue produkzio ekologikoak merkatuan zer kopuru bete dezakeen?

URANGA.— Ezinezkoa da hemendik gutxira geure produkzioa alternatiba bakarra izatea. Geure bidea da hau ugaltzea eta jende guztia-engan haultzea. Baina gaur egun oso zaila da jakitea merkatuko zer kopurua dagoen eta noraino hel daitekeen. European eginak dauden

merkatu ikerketek diote 2.000. urtean produktu hauen kontsumoa ekoizpen osoaren % 2 izango dela, eta egun, arlo honetan garatzen dagoen lurraldean —Alemanian—, % 1 da.

EGUNKARIA.— Nekazaritza

gain, abeltzaintzan edo arrantzatan ere garatu daitezke produktu ekologikoak?

URANGA.— Guk arrantza gutxi daukagu, eta nekazaritza esaten dugunean abeltzaintza ere esaten dugu. Jakina, zailagoa da letxuga bat egitea abere bat baino, eta haragi hau ekologikoki ekoizteko nahiko urrats eman behar dira. Hala ere, geure elkartean arlo gogorrena eta kontzientziatuena abeltzainena da. Bost bazkide ari dira abereekin, eta esan dezakegu nahikoa kopuru dagoela. Hiltegiak, agiriak, bereizketak... urrats horiek guztiak ematen ari gara orain, hor gabilta sartuta, eta hemendik gutxira aterako dugula uste dut. Batzuk ari dira jada saltzen zuzenean txekor eta bildots ekologikoak.

EGUNKARIA.— Produkzioaren arlo guztiak betetzeko nahikoa informazioa eta teknika baduzue?


URANGA.— Azken urteotan asko mugitu gara, eta bidaia-tzeaz gain, toki guztietatik jaso dugu informazioa. Teknika eta informazio nahikoa eta esperientziak arlo guztietan eginak ditugu. Faltan dugu behi-esne eta ardi-esne arloko informazioa, eta oraintxe ari gara ezta lantzen.

EGUNKARIA.— Zaila da nekazari edo abeltzain batendako produkzioa osorik aldatzea?

URANGA.— Norbera dabilen arloaren eta ekoizpenaren arabera. errazena da Iruñetik gora, oraindik jende asko oso ekologikoak diren produktuekin ari delako. Aldaketa handiena, baina, pentsakeran egin behar da. Honek behar du merkatua eta mundu zabala zelari dagoen ezagutzea: kontsumitzaileek eta Administrazioak zer esaten duten, Europa mailan nondik nora doazen gauzak, eta guk pentsatzen dugu hori dela kultura berria. Garbi dago birmoldaketa oso gogorra dela, eta jendeak jakin behar du zer gertatzen ari den, eta hori ikusiz alternatiba bat aurkitu. Eta alternatiba hau oso ikuspuntu zabaletik ikusi behar da. Garbi daukagu geure alternatiba ere hor dagoela.

Jose Uranga

BIOLUR ELKARTEKO
TEKNIKARIA



SOSLAIA

Nekazarien ikaslea

Politikan eta ekologian aspaldian sartuta, uzta-biltzen Europako zenbait herritan izan zuen esperientziak bultzatu zuen nekazaritza ingeniariatza tekniko egitera eta bereziki nekazaritza ekologikoaren arloan lan egitera. «Aspalditik pentsatu nuen arlo hau zela nik ikusten nuen bide gogokoena», dio. Duela zortzi urte hasi zen nekazariekin harremanetan eta hortik sortu zen Bio Lur Elkarte osatzeko ideia. Aitzindaria Euskal Herrian, produktuak osagarri artifizialak erabili gabe ekoizten dituzten nekazariak biltzen ditu, eta honi buruz nahi adina informazio bildu, prestatu eta eskaintzen du ordutik aurrera. Hala ere, berak dioenez, urte hauetan gehien ikasi dutenak beraiek izan dira.

NIKIJATOR

© Zaldi Eroak

